



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 10a

59. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europaren Eguna ospatu dezan eta ekimenak, parte hartzeko bideak eta gazte-proposamenak sustatu ditzan Nafarroan, 2022-Gazteriaren Europako Urtean. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan 2022an jada aplikatzekoa den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboari begira. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza papilomaren birusaren aurkako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan. Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute aurkeztu dute (7. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko maiatzaren 16ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Foru Lege

proposamena 2022 urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/PRO-00001).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europaren Eguna ospatu dezan eta ekimenak, parte hartzeko bideak eta gazte-proposamenak sustatu ditzan Nafarroan, 2022-Gazteriaren Europako Urtean.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Europaren Eguna ospatu dezan eta ekimenak, parte hartzeko bideak eta gazte-proposamenak sustatu ditzan Nafarroan, 2022-Gazteriaren Europako Urtean (10-22/MOC-00046).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europaren Eguna ospatu dezan eta ekimenak, parte hartzeko bideak eta gazte-proposamenak sustatu ditzan Nafarroan, 2022-Gazteriaren Europako Urtean.

Maiatzaren 9an, Schumanen Adierazpenaren 72. urteurrena gogoratu, Europaren Eguna ospatu da. Aurten bat dator Gazteriaren Europako Urtearekin, gazte europarrak eta, bereziki,

COVID-19ak eragindako pandemian zehar egin duten ahalegina aintzat hartzeko urtea.

72 urte dira egungo Europar Batasunaren oinarriak ezarri zirela. Proiektu amankomun eta baterakoa, zeinaren beharra eta garrantzia berriro geratu baita agerian azken bi urteotan bizi izan ditugun krisialdi sanitario, ekonomiko, sozial eta nazioartekoak tarteko. Krisialdi horietan Europar Batasuna egoerak eskatzen zuen mailan jokatu du, eta argi utzi du proiektu europarra eta, horrekin batera, gure demokraziak eta gure ongizate sistemak indartzeko beharra.

Europar Batasuna jakiten ari da nola birmoldatu; izan ere, azken hamarkadan herritarren erakundeekiko ezinegona nagusitu baita, 2008 krisiari emandako austeritate-erantzuna dela-eta. Ezinegon horrek proiektu komunitarioarekiko atxikimendurik eza eragin du, bereziki gazteen artean.

Hala ere, oraingo honetan konponbideak zeharo desberdinak izan dira eta Next Generation EU berreskuratze funtsetan oinarritutako erantzun azkar, sozial eta solidarioa eman da. Eta horrekin berriro finkatu da Europar Batasun sendo eta indartsua, ekintza-ahalmena duena arazo komunen aurrean eta herritarren arazoei, bereziki gazteei, erantzuteko gai dena.

Herritartasun europar sendoagoa eraikitzeke uste horretan, Europako Batzordeak lau helburu ezarri zituen Gazteriaren Europako Urte honetarako:

Gazteen ikuspegi positiboak berritzea eta arreta berezia jartzea COVID-19aren pandemiak haiengan izandako eragin negatiboetan. Aldi berean, nabarmenduko da nola trantsizio ekologikoak eta digitalak eta Batasunaren bestelako poli-

tika batzuek aukerak eskaintzen dizkieten gazteei eta gizarteari, oro har, inspirazio gisa hartuta gazteen ekintzak, ikuspuntuak eta ikuskera, Batasunaren proiektu komuna indartzen eta biziberritzen jarraitzeko.

Gazteak ahalduntzea eta babestea, baita gazteriaren arloko lanaren bidez ere, bereziki aukera gutxien dutenak, jatorri behartsu eta aniztasuneko gazteak, talde zaurgarri edo baztertuetakoa, landa eremuetatik eta urrunekoetatik eta eremu periferiko edo garapen gutxiagokoetatik datozenak, ezagutza eta gaitasun nabarmenak eskura ditzaten, halako moduz non herritar aktibo eta konprometitu eta aldaketa-sustatzaile bihurtuko diren, Europakoa izatearen sentimenduak inspiratuta.

Gazteei laguntzea hobeto ulertzen eta era aktiboan sustatzen eskura dituzten aukera desberdinak, Batasuneko edo nazio mailako, erregioko edo tokiko politika publikoetatik eratorriak, haien garapen pertsonala, soziala, ekonomikoa eta profesionala mundu ekologiko, digital eta inklusiboago batean laguntzeko eta, aldi berean, horretarako oraindik dauden oztopoak desagerrarazteko.

Gazteriari buruzko politika Batasuneko bidezko alor politiko guztietan txertatzea, 2019-2027 aldirako Europar Batasunaren Gazteriari buruzko Estrategiarekin bat, politikien taxutze-maila guztietan gazteriaren ikuspuntua sartzeari sustatzeko.

Lau helburu horiek gainerako gobernu eta administrazioek jarraitu eta sustatu beharreko lan ildo bat ezartzen dute. Gai izanda gazteentzako aukerak sortzeko, beren bizi proiektu pertsonalak gara ditzaten eta herritar aktibo eta konprometitu bihurtu daitezkeen egokiak diren alor guztietan garatuta gazteriari buruzko politika publikoen bidez.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekimenak, parte hartzeko bideak eta gazte-proposamenak sustatu ditzan Nafarroan, 2022-Gazteriaren Europako Urtean. Hala, bereziki lehenetsiko da Europako hezkuntza-sistemen kalitatea hobetzea, gizarte zibilaren parte-hartzea erraztea eta hezkuntza ez-formalak eta boluntaritzak pertsonen garapenean duen zeregin garrantzitsua aitortzea eta, halaber, gazteen enplegarritasunerako tresna erabakigarritzat hartzea eskolatik lan merkaturako trantsizio-prozesuak kalitatezko lan-praktiken bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazteen ikuspegia sartzeari Next Generation EU funts europarrekin finantzatutako inbertsioetan, Nafarroako gazteriak pairatzen dituen problematika kronikoak desagerrarazte aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazteen parte-hartzerako bideak sortu eta susta ditzan. Bide horiek demokrazia parte-hartzaileago baten eta erakunde irisgarriagoen alde eginen dute, gazteriari garrantzi handiko zeregina esleituz, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziatik ateratako ondorioen haritik.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du –eta horretarako konpromisoa hartzen du– Nafarroako gazteen artean Europaren aldeko sentimendua sendotzeko eta Nafarroako herritarrek Europako erakundeak hobeto ezagutzeko ekimenak eta jarduerak susta ditzan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan 2022an jada aplikatzekoa den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboari begira.**

### *MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan 2022an jada aplikatzekoa den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboari begira (10-22/MOC-00047).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Azken hilabeteotan inflazio aldi agerikoa ari gara jasaten ari gara, non KPIren hazkunde tasak bortizki azkartu diren, ia bi digituraino iritsiz martxoan eta 5 8,4ra apirilean hilabete horretarako inflazioaren datu aurreratu gisa, Errusiak Ukraina inbaditu izanarekin areagotuta.

Egoera horren aurrean, ezinbestekoak dira herritarren poltsikora zuzenean iritsiko diren politikak. Areago, errenta ertain eta baxuetara iritsiko direnak, haiek baitira inflazioak dakartzan kostu handienak pairatzen ari direnak.

Birbanaketarako helburu hori lortzeko Gobernuak badu jarduteko tarte bat, aurrekontuen zein fiskalitatearen arloan, hain zuzen ere inflazioa handitu duena. Prezioen igoerek zuzenean igo dituzte zerga-oinarriak, zerga terminoetan.

Hori guztia dela-eta

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du, honako neurri hauek har ditzan: 2022an jada aplikatzekoa den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboa, prezioen igoeraren azkartzeak eta egoera ekonomikoaren narriatzeak – Errusiak Ukraina inbaditu ostean okerrera egin duenak–herritarrei sorrarazitako inpaktua arintze aldera.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan (10-22/MOC-00048).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Gertatu den lehengaien prezioen igoera ia kontrolik gabeak aurrekaririk gabeko inflazioa sorrarazi du eta zeharka ekarri du elektrizitateak aurrekaririk gabeko igoera izatea, gasaren prezioen igoeragatik. Horrek alarma piztu du Europar Batasunean, zeinak birplanteatu baitu 2050. urterako deskarbonizazio osoaren helburura iristeko politika energetikoa. Errusiak Ukraina inbaditu izanak berretsi egin du Europan dugun sistema energetikoaren ahulezia, bai eta gai horren inguruan gure estrategiak birplanteatzeko beharra ere. Energia-mix bat eduki beharra dago, energia berriztagarriak babesteko 2050eko deskarbonizazio osora arteko trantsizio aldiari. Birplanteamendu horretan, energia nuklearra ez dago jada demonizatuta; aitzitik, aitortu egiten da sortzaile “merke” eta isuririk gabeko moduan duen zeregina eta hura aldi baterako mantentdu behar dela une nahasi hauetan. Sektore hori hil ala bizikoa da Espainiako eskema energetikorako; izan ere,

gau egun ekoiztutako elektrizitatearen % 22 baino gehiago ematen du, CO2 isuri gabe eta gasa edo berriztagarriak ez bezala aurreikusi ezina edo aldizkakoa izan gabe.

Europako proposamenean energia nuklearreko inbertsioak sartuko lirateke, elektrizitatea 2045era arte sortzeko modukoak, baldintza izaki instalazioen (materialak, eraikuntza eta abar) bizikloari lotutako CO2 isuririk ez luketela gaudituko 100g/kWh-ko atalasea (hondakinen kudeaketa eta segurtasunerako baldintzak zorrotzak betetzeaz gain)

Era ulergaitzean, Espainiako Gobernuak energia nuklearra Europako taxonomian sartzearen aurka dago, ez baitu energia “berde” gisa ulertzen, nahiz eta Batasuneko zirriborroak energia nuklearra sartu taxonomiako bigarren kategoria batean, alegia, karbono isuri baxuetakoak direnak eta oraingoz aukera eskuragarri ez dutenak, hain zuzen ere Espainiak pairatzen duen prezioen igoera azkarraren sakoneko arazoa dena. Energia nuklearraren kasuan, eta Barne Merkatuko komisarioak adierazitakoaren ildotik, deskarbonizazioarekiko eta energiaren prezioen igoerarekiko benetako kezka zail uztartzen da energia nuklearraren aurka egotearekin. Izan ere, gasaren merkatuen ezegonkortasunari aurre egiteko (gogora dezagun Espainiaren kasuan merkatu horiek batez ere Aljeria edo Errusia bezalako herrialdeen menpekoak direla), bai eta eguzki energiaren zein eolikoaren aldizkakotasunari ere, biltegitratzeko teknologiak (bateriak eta hidrogenoa) behar beste garatzen ez diren bitartean, atmosferara CO2 isurtzen ez duen aukera bakarra, gaur egun, fisio nuklearra da. Europako Batzordearen proposamenak 2045ean ezartzen du epea energia nuklearrerako inbertsioak Batasuneko taxonomia berdearekin bateragarritzat jo daitezkeen. Hori ikusirik, eta kontuan hartuta zentral nuklear baten balio-bizitza, hirurogei urtetik gorakoa izan daitekeena, hobe da egun dauden zentraletan inbertitzea erreaktore konbentzional berriak eraikitzea baino.

Gure herrialdean egun zazpi erreaktore aktibo daude, bost planta ezberdinetan. Foro Nuklearraren arabera “hamargarren urtez jarraian” nuklearra da Espainiako sistema elektrikoan elektrizitate gehien sortu duen iturria. Hala ere, Espainiak ez

du zentral nuklear gehiagorik eraiki duela hogeita hamar urte baino gehiago. Egun jardunean daude laurogeiko hamarkadan jarri ziren abian. Are okerrago, Gobernuaren egutegian aurreikusten da haiek ixtea Europako Batzordeak ezarritako lehen aipatu 2045eko epe hori baino askoz lehenago. Zehazki, Espainiako erreaktoreak itxiko dira hamarkada honetan eta hurrengoan zehar. Almaraz I 2027an, Almaraz II 2028an eta Ascó I 2029an. 2030eko bukaeran, egutegian aldaketarik ez badago, Ascó I ere itxita egonen da. Hurrengo bosturtekoan Cofrentes eta Vandellós II geldituta geratuko dira, 2033an eta 2034an hurrenez hurren. Azkenik, 2035ean, aurreikusita dago Trilloko zentrala ixtea. Egutegi horrek amaiera emanen lioke Espainian energia nuklearra ekoizteari, Europako Batzordeak bertan inbertitzeko ezarri epea amaitu baino hamar urte aurretik. Halatan, gure herrialdeak inbertsioko, enplegu sorkuntzako, deskarbonizazioko eta autonomia energetikoko hamarkada bat galduko luke, horren ordez jartzeko epe ertainean ekoizpen eskala horretarako dagoen eta egonen den aukera bakarra: gas naturala. Faktura, beti bezala, Espainiako etxeek eta

negozioek ordainduko dute, hirugarren herrialdeekiko menpekotasun handiagoarekin eta elektrizitatearen prezio are aurreikusi ezinagoeekin.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du:

1. Hiru hilabeteko epean Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan, identifikatze aldera ahalik eta instalazio gehien 2045era arte luzatzeko behar diren inbertsioak, segurtasun, jasangarritasun eta errentagarritasun baldintzak mantenduta.

2. Teknologia nuklearra baliatzea erraztuko duten neurrien plan bat taxutzea, non sartuko den arau mugatzaileak kentzea edo, beharrezkoa balitz, Energia eta Klimarako Plan Nazional Bateratua (2021-2030) berrikustea, bai eta aztertzea eta ikeretzea ere energia horren teknologia eta aplikazio berrietan, energia berriztagarrien mix bat laguntzeko aukera erreal eta seguru bihurtzen baitute.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da giza papilomaren birusaren aurkako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan.**

*NAVARRA SUMA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiatzen baita giza papilomaren birusaren aur-

kako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan (10-22/MOC-00049).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza papilomaren birusaren aurkako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan.

### Zioen azalpena

Giza papilomaren birusa DNA kate bikoitzeko birus bat da, zeinaren 200 genotipo baino gehiago identifikatu diren. Birus horren infekzioa munduko sexu-transmisiozko infekzio ohikoena dela uste da. Lesio onberak sorraraz ditzake, kondiloma puntazorrotzak, esate baterako, baina baita ere lesio aurregaiztoak eta mota ezberdinetako minbiziak emakume zein gizonengan. Giza papilomaren birusarekin loturako patologia onkologikoko kasuen laurden bat gizonezkoei dagokie.

Giza papilomaren birusak umetokiaren lepoko minbizia, uzkikoa, zakilekoa edo ahofaringekoa sor dezake, haren genotipo onkogenikoetako baten infekzio iraunkor baten ondoren.

Badakigu giza papilomaren birusarekin lotutako infekzio eta neoplasia ohikoenak prebenitu ahal direla zenbait txertoren bidezko immunizazioari esker.

2007-2008 aldian giza papilomaren birusaren txertoa autonomia-erkidegoetako txerto-egutegian sartu zen, minbizia prebenitu ahal duen bigarren txertoa da, B hepatitisaren ondotik.

Txertoaren emaitza onena lortzen da lehenbiziko sexu-harremanak dituen populazioarekin, sexu-jarduera infekzio arrisku handiagoa ezartzen duen faktorea delako.

Txerto horiek eskura daudenetik hamar urte baino gehiago iraganik, aurrerapen garrantzitsuak egon dira txertatze-estrategietan eta jarraibide zein gomendioetan: txertatzeko adinaren aurrerapena; 2-3 dosietako pautak; emakumeak nerabe-zaroan immunizatzea; garapen bidean dauden herrialdeetan txertatze-programak ezartzea; beste neoplasien prebentzioa; giza papilomaren birusaren infekzioaren arrisku handiko populazioaren txertaketarako gomendioak; txertatzearen inpak-

tuaren eta eraginkortasunaren ebidentzia zientifikoa; txertoen segurtasunaren baieztapena.

Neska-mutilak nerabe-zaroan giza papilomaren birusaren aurka txertatzea errealitate bat da, gutxienez Europako hogeit hamar herrialdetan: Besteak beste Alemania, Danimarka, Irlanda, Portugal, Frantzia eta Herbehereak.

Espainiako Pediatria Elkarteak urteak eman ditu giza papilomaren birusaren aurkako txertoa mutikoentzat ere gomendatzen, ez bakarrik neskentzat.

Nafarroako Foru Komunitatean urteko txerto-egutegian bakarrik sartzen da 12 urteko nesken-dako txertoa. Bi dosi ematen dira, gutxienez ere 5-6 hilabeteko tartearekin (erabilitako txertoaren arabera). Gizonezkoak ez ditu kontuan hartzen.

Nafarroan giza papilomaren birusaren aurkako txertoa gizonezkoendako txerto-egutegian sartzen da, txertatze espezifikoen kategorian, 18 urte edo gehiagokoentzat, giza papilomaren birusaren infekzioaren arriskuko baldintzetan sexu harremanak beste gizonekin dituzten gizonentzat (26 urtera arte).

Katalunia aitzindaria izan da et berriki txerto-egutegian giza papilomaren birusaren aurkako txertoa sartu du 11 eta 12 urteko haurrentzat.

Nafarroako txerto-egutegia eguneratu egin behar dugu, giza papilomaren birusaren aurkako txertoa 12 urteko mutikoentzat sar dadin, neskatokendako baldintza berberetan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du, Nafarroako txerto-egutegian giza papilomaren birusaren aurkako txertoa sar dezan 12 urteko mutikoentzat, neskatokekin egin den bezalaxe.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, balora dezan txerto-egutegi komunean giza papilomaren birusaren aurkako txertoa sartzea 12 urteko mutikoentzat.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 5ean.

Foru parlamentariak: Cristina Ibarrola, Patricia Fanlo, Bakartxo Ruiz, Mikel Buil eta Marisa de Simón